

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Adingabeen kirol-ekintzak arautu egingo dira haien segurtasuna eta hezkuntza-alderdia bermatzeko

Arauaren zirriborroa herritarren partaidetzarako zabalik dago, eta hark entrenatzaileen titulazioa eta gurasoen jokabide desegokien zehapena azpimarratuko ditu, esate baterako

Lunes, 27 de octubre de 2014

Entrenatzaileen titulazioa, gurasoen jokabide desegokien zehapena eta jokalariek kirol-klubekin duten loturaren iraupena dira, adingabeentzako kirol-ekintza publikoen [foru-dekretuan](#) arautuko diren zenbait alderdi. Foru-dekretu hori Nafarroako Gobernuak ari da lantzen lehiaketa horien segurtasuna eta hezkuntza-alderdia bermatzeko asmoz.



Adingabeak Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartzen.

Nafarrek arau honen zirriborroari beren iradokizun eta ekarpenak egin diezazkiekete azaroaren 4ra arte; zirriborro hori honako webgune honetan dago eskuragarri kontsultatu ahal izateko: www.deporte.navarra.es.

Bestalde, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutua foru-dekretu honen proiektua inplikaturako eragileei aurkezten ari zaie egunotan Iruñean egindako lan-saio batzuetan: kirol-federazio, kiroleko udal-teknikari edo klubei, esaterako.

Arau honek Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoan jasotako ekintzetako bati erantzuten dio, 2010ean Parlamentuan onartutakoa. Hiru helburu nagusi ditu: kirol-ekintza horiek segurtasun-baldintza egokietan egitea, adingabeen garapen orekatuaren alde egitea eta beren maila, gaitasun eta hezkuntza-beharrei egokituta izatea.

Arautuko diren gaiak

Nafarroako Gobernuak onartu aurretiko aldaketak izan ditzakeen foru-dekretu horren zirriborroak, aurreikusten du adingabeen kiroleko entrenatzaile edo begiraleek titulazio zehatz batzuk izango dituztela zeregin horiek erabateko bermekin egin ahal izateko.

Gainera, dekretu horrek arau-esparru bat finkatuko du eta, hari esker, adingabeen kirol-ekintzetako guraso edo ikusleak zehatu ahal dira jokabide desegokiak, neurrigabeak badituzte edo bilatu nahi den hezkuntza-espirituaren aurkakoak badituzte. Pertsona bera (kirol-bidea erabiliz) nahiz haren kluba edo harremana duen kluba, hala badagokio, zehatu ahal izatea jasotzen da.

Arauk adingabeek beren kirol-klubekin duten loturaren gehieneko iraupena ere finkatuko du; oro har urtebetekoa izango da, 14 urtetik gorakoa bada salbu eta klubaren eta gurasoen edo legezko tutoreen arteko berariazko izenpetutako itun bat ez badago behintzat; itun horren arabera, konpromisoa bi denboralditarako izango zen (ez gehiago).

Foru-dekretuak beste gai batzuk ere arautuko ditu, esaterako: prestakuntzako ekintzen publicitatea (kirol-eskolak, udako campusak...), eta kirolari ezagunen irudia ezingo dute erakargarritasun modura erabili, baldin eta iragartzen duten ekimenarekin inplikatu ez badaude; kirol-ekintza publikoak praktikatzen dituzten adingabeen osasun-laguntza; eta haiek borroka-kiroletan parte hartzea norbere babeserako elementuak erabiltzen ez badira.

